

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Iosu Murgia Glez. de Mendozak, ARALAR Misto-Taldeko ordezkariak, Batzar Nagusietako araudiari jarraikiz, "ETXEGABEKOEI" buruzko ARAUZ BESTEKO SALOA aurkezten dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

ZIOA:

5/96 Gizarte-Zerbitzuen Legeak, Urriaren 18koa, 12. artikulua bigarren puntuaren udalek bete behar dituzten zerbitzuak zeintzuk izan behar diren aipatzen ditu eta haien artean bigarren puntu honetan haxe adierazten du: "20.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan, oinarrizko gizarte-zerbitzuaz gain, kasu larrietan jendea hartzeko zerbitzuak egongo dira, alojamendurik ezak edo elkarrekin bizi izateko gatazka latzek sortutako zenbait egoera larri erantzuteko; herritarren elkartasuna eta elkarbizitza erraztuko duten zentroak ere egongo dira"

Mazarredoko aterpetxeak 50 plaza ditu; horietatik 36 ohikoak dira, baina hotzik handieneko egunetan beste gela bat prestatzen da, eta horrela, guztira 105 plaza egoten dira. Eskakizun baxuko gaueko babes gehien garatu duen udalerrria Bilbo da; izan ere, neguan halako hiru zentro ditu, eta horietan, gutxi gorabehera, 96 plaza daude Mazarredoko aterpetxea, eskakizun baxuko gaueko zentroa, zentro hori neguko harrera dispositibotzat sortu da eta urtean lau hilabetetan bakarrik egoten da irekita

Une honetan, Bilbon eskakizun baxuko gaueko zentro bat dago, Mazarredoko aterpetxea, eta horrek zeharkako udal kudeaketa dauka; hala eta guztiz ere, zentro hori neguko harrera dispositibotzat sortu da eta urtean lau hilabetetan bakarrik egoten da irekita. Gasteizko Aterpe gaueko zentroak udal titularitatea dauka, baina enpresa pribatu batek kudeatzen du, lizitazio publikoaren bidezko kontratazioaren formula erabiliz. Donostian, Aterpe Noche gaueko zentroa erakunde pribatu baten ekimena da eta horren finantziakoa bertako fondoekin nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzekin egiten da.

Baliabideen asetzea, batik bat, bi fenomeno hauekin erlazionaturik dago:

- Lurraldeko hiru hiriburuetan kokaturiko baliabideetan gertatzen den eskariaren xurgapena, ez baitago antzeko baliabiderik larrialdiko harreran eskumena duten udalerrietan.

- Migrazio prozesuetan dabilzan pertsonak halako sareak erabiltzea; horien beharrian bakarra euren lege egoerari eta oinarrizko beharrianak betetzeari lotuta dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetakoko ostatu baliabideen eta gaueko zentroen jarduketa, lurralde mailako dispositibotzat, agerian gelditu da Bilboko Mazarredon dagoen gaueko aterpetxea ireki denean. Baliabideen funtzionamenduari buruz egindako ebaluazioan detektatu denez, lagundutako bizkaitar guztien %50 Nerbioiren ezkeraldeko udalerritarikoren batekoak ziren; halaber, euren herrietan halako dispositiboak egoteari buruz galdetu zaienean, %100ek baietz erantzun du.

“Respuestas a las necesidades básicas de las personas sin hogar y en exclusión grave” Arartekoaren txostenaren arabera, eskumena duten udalek aterpeak bezalako egiturak ez sortzea etxegabekoentzat eta eskusio egoeran daudenentzat oso kaltegarria da ze errekurtso hauek ez sortzeko jarrerak etxegabekoak urruntzen ditu bere inguru eta sare familiar, sozial eta kulturaletik, honek suposatzen duen kaltearekin berrintegrazio sozialaren bidean.

Txosten honen arabera Bizkaian badira eskumena duten udalak zeinek bere ardura sozialak Bilbora deribatzen dituzten, horrela, gainera, kenduta arazo hau eta aldi berean gainera kenduta ere 20000 biztanletik gorako udalei legeak exijitzen dien ardura.

UDALERRIA LARRIALDIKO JARDUKETA PROTOKOLOA ETXERIK GABE BIZI DIREN PERTSONENTZAT

Barakaldo - Udaltzaingoak etxerik gabeko pertsona bat aurkitu eta Bilboko ostatu baliabideetara bideratzen du.

Basauri - Ez da jarduketa protokolorik etxerik gabeko pertsonekin; udalerrria ez da igarotzeko zona eta pertsonaren bat kaleetan lotan aurkitzen denean, Elejabarriko aterpetxera (Bilbo) eramaten da.

Ermua - Oinezkoei laguntzeko zerbitzua: Udaltzaingoak informazioa ematen die Euskadiko 3 hiriburuetan dauden baliabideei buruz, eta horietariko baterako autobus-txartela ematen zaie.

Galdakao - Ez da jarduketa protokolorik etxerik gabeko pertsonekin; udalerrria ez da igarotzeko zona eta pertsonaren bat kaleetan lotan aurkitzen denean, Elejabarriko aterpetxera (Bilbo) eramaten da.

Getxo - Ez dago etxerik gabeko pertsonen laguntzeko protokolo berezirik. Kasu larrietan esku hartzeko protokoloaren barruan (egoera larria izanez

gero) edo laguntza arrunteko protokoloaren barruan (egoera larria ez denean) ematen da laguntza.

Leioa - Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide berezirik edo gizarte larrialdiko zerbitzurik ez dagoenez, Elejabarriko aterpetxera (Bilbo) eramaten dira.

Portugalete - Udalerriko larrialdi zerbitzuek (osasunekoak, polizia, Gurutze Gorria) telefonoz deitzen diote gizarte langileari; horrek hoteleko plaza bat aurkitu eta zerbitzuari jakinarazten zaio bertara eramateko. Gero, interesatuari gizarte zerbitzuetara joateko hitzordua jartzen zaio.

Santurtzi - Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide berezirik eta gizarte larrialdiko zerbitzurik ez dagoenez, diru-laguntza eskaini eta Bilboko larrialdiko ostatu baliabideetara bideratzen dira zuzen-zuzen.

Sestao - Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide berezirik eta gizarte larrialdiko zerbitzurik ez dagoenez, Bilboko larrialdiko ostatu baliabideetara bideratzen dira.

Halako beharrezanean erantzun egokia emateko larrialdiko harrera zentrorik edo protokolo estandarrik ez duten udal erakundeek diskurtsoaren arabera, alde batetik, euren udalerrietan ez dago "etxegabetasun" egoerarik, edo, halakorik egotekotan, oinarrizko gizarte zerbitzuen ohiko ordutegian laguntzen dira; bestetik, bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen nahiago izaten dute hiri handietara joan.

Larrialdiko ostatuan eskumenak dituzten udalek aterpetxe motako egiturak sortu ez izanaren zergatiak, izan ere, zenbait elementuren konbinazioaren eraginezkoak dira:

- Alde batetik, larrialdiko harrerako udal eskumenak argi eta garbi zehaztuta egon arren, araudi horrekin batera ez da baliabide ekonomikoen zuzkidura egokia egin.

- Bestalde, udal sentsibilitateen arabera, zerbitzu batzuei lehentasuna ematen zaie, beste zenbaiti dagokienez.

Gainera, EAEko hiriburuetan halako dispositiboak egotearen eraginez (lurralde mailan diharduten dispositiboak), beste udal batzuek pentsa dezakete beharizan hori beteta dagoela. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da dinamika hori apurtzea eta gaueko nahiz eguneko laguntzako egiturak beste udalerriri batzuetan ere sortzea; horrela, gizarteratze prozesuak modu naturalagoan landuko dira, pertsona horiek euren familiei, gizarteari eta auzotarrei lotuta.

Esandako hau guztiagatik hurrengoa proposatzen dugu:

Arauz Besteko Saloa

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak 20.000 biztanletik gorako udalerriei Bilbon dagoen Mazarredoko Aterpeak ematen duen zerbitzu bera emango duten udal-aterpeak sor ditzatela eskatzen die, honela, etxebizitza baten gabeziak sorturiko egoera larriei kasu egin diezaieten.

2.- Bizkaiko Batzar Nagusiek Aldundiari eskatzen diote behar eta betebehar hauek bere gain har ditzala Bizkaian hiri handien ingurutik urrun diren lekuetan, esaterako, Lea-Artibai, Arratiko eskualdea, Enkarterri, etb...., saiatuta etxegabekoen loturak bere sare familiar, sozial eta auzo artekoarekin larregi apur ez daitezen.

*Bilbon, 2007ko Azaroak 12
Iosu Murgia*

Mistoa-ARALAR alderdiko batzarkidea